

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2023ko uztailaren 5a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetexea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko ekainaren 17ko udalbatza eratzeko bilkuraren akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarraren ohiko bilkuren maiztasuna.
- 3.- Onartzea, egoki bada, alkate eta zinegotzien liberazioak eta ordainsariak.

- 4.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena batzorde informatzaile iraunkorrek eratzeari buruz eta horien osaketari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoari buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarreko ordezkarien izendapena Udalak ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
- 7.- Alkateak hainbat izendapeni buruz hartutako erabakien berri ematea: alkateordeak, Gobernu batzarreko kideak, batzorde informatzaile iraunkorren buruak eta delegazioak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko jaieguna 2024. urterako.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO EKAINAREN 17KO UDALBATZA ERATZEKO BILKURAREN AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2023ko ekainaren 17ko udalbatza eratzeko bilkuraren akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-a) artikulua ezarritakoa betez, alkateak proposatu du udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 19:30ean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 19:30ean.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATE ETA ZINEGOTZIEN LIBERAZIOAK ETA ORDAINSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua ezartzen du udalbatzako kideek eskubidea dutela ordainsariak jasotzeko beren kargua betetzeagatik, bai dedikazio eskusiboan eta bai partzialean; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta udalbatzak bere gain hartuko du enpresari dagozkion kuoten ordainketa.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan gutxienez dedikazio partzialeko oposizioko zinegotzi bat egongo dela bermatuko da, udal-gobernuaren kontrol- eta fiskalizazio-funtzioak eraginkortasunez bete ahal izateko. Hori dela eta, EUDELeko Batzorde Exekutiboak, 2017ko apirilaren 10eko bilkuran, hau erabaki zuen: 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan oposizioko zinegotzien dedikazio partzialaren ehunekoa %50etik %75era bitartekoa izatea eta, ehuneko zehatza erabakitzeke, alderdi hauek kontuan hartzea:

- Biztanle-kopurua; kontuan hartuta herria zein kopurutik dagoen gertuago: 5.000 biztanletik edo 10.000tik.
- Gobernu-taldean dedikazio eskusiboa duten karguen kopurua.

EUDElen erabakiaren arabera, aurreko irizpideetatik ateratzen den dedikazio-ehunekoa aplikatuko zaio oposizioko zinegotzi liberatuari; ordainsari-maila erabakitzeke, berriz, irizpide hau aplikatuko da: gobernu-taldean dedikazio eskusiboa duen ordainsari-maila txikieneko zinegotziaren ordainsari-maila bera aplikatuko zaio, %10eko minorazioarekin.

Ondorioz, alkateak proposatzen du:

- Berak dedikazio eskusiboan betetzea alkate-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin (urteko zenbatekoa: 60.660,08 euro).
- Olatz Santamaria Bereziartuak (EH Bildu) %100eko dedikazio eskusiboan betetzea lehen alkateorde-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 52.524,55 euro).
- Lourdes Salsamendi Goñik (EAJ) %55eko dedikazio partzialean eta %10eko minorazioarekin betetzea oposizioko zinegotzi-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 25.999,65 euro).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Xabier

Ibarguren Azkue (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), Iñaki Makazaga Urdangarin (EH Bildu), Lohitzune Solabarrieta Odriozola (EH Bildu), Iosu Lizarralde Ibarbia (EH Bildu), Nagore Rementeria Argote (EH Bildu) eta Inaxio Alguacil Barrenetxea, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ); guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Anuska Esnal Olidenek dedikazio eskusiboan betetzea alkate-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin (urteko zenbatekoa: 60.660,08 euro)

2.- ONARTZEA Olatz Santamaria Bereziartuak (EH Bildu) %100eko dedikazio eskusiboan betetzea lehen alkateorde-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 52.524,55 euro).

3.- ONARTZEA Lourdes Salsamendi Goñik (EAJ) %55eko dedikazio partzialean eta %10eko minorazioarekin betetzea oposizioko zinegotzi-kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 25.999,65 euro).

4.- Beren karguak dedikazio eskusiboan eta partzialean beteko dituzten hiru udalbatzakideei alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimenean eta Udalak hartuko du bere gain enpresari dagozkion kuoten ordainketa.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du udalbatzarraren bukaera azalduko duela zein den beren abstentzio-botoaren arrazoia.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1-c) artikulua hau dio, hitzez hitz: «5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan (...) beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera».

Ondorioz, alkateak batzorde informatzaile iraunkor hauek osatzea proposatzen du:

- **HERRIA GARATZEKO BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Merkataritza, Turismoa, Enplegua eta Segurtasuna

- **HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirolak, Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
- **BARNE-ANTOLAKETAKO BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Pertsonala, Ogasuna, Ondarea, Administrazio Orokorra eta Modernizazioa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), Iñaki Makazaga Urdangarin (EH Bildu), Lohitzune Solabarrieta Odriozola (EH Bildu), Iosu Lizarralde Ibarbia (EH Bildu), Nagore Rementeria Argote (EH Bildu) eta Inaxio Alguacil Barrenetxea, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ); guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA batzorde informatzaile iraunkor hauek osatzea:

- **HERRIA GARATZEKO BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Merkataritza, Turismoa, Enplegua eta Segurtasuna
- **HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirolak, Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
- **BARNE-ANTOLAKETAKO BATZORDEA**, arlo hauek bilduko dituenak: Pertsonala, Ogasuna, Ondarea, Administrazio Orokorra eta Modernizazioa.

Alkatea izango da batzorde informatzaile iraunkor horien presidentea; berak egingo ditu bilkuretako deialdiak eta bilkura guztietan parte hartuko du.

Batzorde informatzaile iraunkor horiek ostiral goizetan egingo dira:

- Herria garatzeko batzordea hilaren lehen ostiralean egingo da.
- Herritarrentzako zerbitzuen batzordea hilaren bigarren ostiralean egingo da.
- Barne-antolaketako batzordea hilaren hirugarren ostiralean egingo da.

Batzorde informatzaile iraunkorren bilkuretarako deialdia aurreko astelehenetan bidaliko da, dokumentazioarekin batera.

2.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Batzordeak honela osatuta geratuko dira:

HERRIA GARATZEKO BATZORDEA

- **Ordezkeri titularrak:** Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Lohitzune Solabarrieta Odriozola (EH Bildu), Iñaki Makazaga Urdangarin (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).
- **Ordezkeri ordezkioak:** Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ).

HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA

- **Ordezkeri titularrak:** Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), Iosu Lizarralde Ibarbia (EH Bildu), Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ).
- **Ordezkeri ordezkioak:** Inaxio Alguacil Barrenetxea (EH Bildu).

BARNE-ANTOLAKETAKO BATZORDEA

- **Ordezkeri titularrak:** Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Inaxio Alguacil Barrenetxea (EH Bildu), Nagore Rementeria Argote (EH Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ).
- **Ordezkeri ordezkioak:** Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA UDALBATZARREKO KIDEEN ERREGIMEN EKONOMIKOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), Iñaki Makazaga Urdangarin (EH Bildu), Lohitzune Solabarrieta Odriozola (EH Bildu), Iosu Lizarralde Ibarbia (EH Bildu), Nagore Rementeria Argote (EH Bildu) eta Inaxio Alguacil Barrenetxea, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ); guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Orioko udalbatza osatzen duten talde politikoen diru-izendapen finkoa (350 euro hileko, talde politiko bakoitzarentzat), eta diru-izendapen aldakorra (25 euro zinegotziko eta hileko).

2.- ONARTZEA beren kargua dedikazio eskusiboko edo partzialeko erregimenean betetzen ez duten zinegotzien diru-izendapena (250 euro zinegotziko eta hileko),

bozeramaileen batzordean, udalbatzarretan eta batzorde informatzaileetan parte hartzeagatik.

3.- Beren karguak dedikazio eskusiboan edo partzialean betetzen dituzten udalbatzakideek ez dituzte goiko konpentsazio ekonomikoak jasoko.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UDALAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATU GUZTIETAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- IZENDATZEA Anuska Esnal Oliden alkatea (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua lehen alkateordea (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi zinegotzia (EAJ) Orioko Udalaren ordezkari titular Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.

2.- IZENDATZEA Xabier Ibarguren Azkue bigarren alkateordea (EH Bildu), Inaxio Alguacil Barrenetxea zinegotzia (EH Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz zinegotzia (EAJ) Orioko Udalaren ordezkari ordezkari Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.

3.- IZENDATZEA Anuska Esnal Oliden alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular Urola Kostako Mendi Nekazaritzako Elkartean (URKOMEn). Ordezkari ordezkari Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu) izango da.

4.- IZENDATZEA Anuska Esnal Oliden alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular Gipuzkoako Ur Partzuergoan. Ordezkari ordezkari Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu) izango da.

5.- IZENDATZEA Anuska Esnal Oliden alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular Euskal Fondoaren Batzar Nagusian. Ordezkari ordezkari Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu) izango da.

6.- IZENDATZEA Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Iosu Lizarralde Ibarbia (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) udalbatzakideak Orioko Udalaren ordezkari titular Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

Ordezkari ordezkariak hauek izango dira, hurrenez hurren: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ).

7.- IZENDATZEA Anuska Esnal Oliden alkatea (EH Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular eta Olatz Santamaria Bereziartua lehen alkateordea (EH Bildu) goian propio aipatu ez den eta Udalaren ordezkaritza behar duen beste edozein organotan.

7.- ALKATEAK HAINBAT IZENDAPENI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA: ALKATEORDEAK, GOBERNU BATZARREKO KIDEAK, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN BURUAK ETA DELEGAZIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak, 2023ko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, lehen alkateorde izendatu zuen Olatz Santamaria Bereziartua zinegotzia (EH Bildu), toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2023ko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, bigarren alkateorde izendatu zuen Xabier Ibarguren Azkue zinegotzia (EH Bildu), toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2023ko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatu zituen Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ).

Era berean, alkatea izango da Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren burua.

Azkenik, udalbatzarrak jakin du Udaleko Bozeramaileen batzordea eratu dela eta kide titular hauek osatuko dutela:

- Anuska Esnal Oliden. (EH Bildu)
- Olatz Santamaria Bereziartua (EH Bildu)
- Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu)
- Noemi Ostolaza Arakuz (EAJ)

Bozeramaileen batzordeko ordezeko kideak hauek izango dira: Inaxio Alguacil Barrenetxea (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONTRATAZIO-ESPEDIENTEEN KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAKETA, KONTRATAZIO-ORGANOA UDALBATZARRA DENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa, kontratazio-organoa udalbatzarra denean. Kontratazio-mahaia honela osatuko da:

- **Presidente titularra:** Anuska Esnal Oliden, alkatea.
- **Presidente ordezkoa:** Olatz Santamaria Bereziartua, lehen alkateordea
- **Mahaikide titularra:** Jon Carrera Jauregi, idazkari-kontu-hartzailea
- **Mahaikide ordezkoa:** Matxalen Fondado Eriz, administrazio orokorreko teknikaria
- **Mahaikide titularra:** Pilar Azurmendi Etxegarai, udal-arkitektoa
- **Mahaikide ordezkoa:** Amaia Usandizaga Manterola, udal-arkitekto teknikoa
- **Idazkaria:** Maider Lopetegi Azkue, administraria

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO JAIEGUNA 2024. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Alkatearen proposamena da Orioko jaieguna 2024. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko 2024ko jaieguna hau izatea: ekainaren 29a, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekupeatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren maiatzaren 30eko 71/2023 dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen du 2024. urterako.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean. Lehenik eta behin, adierazten du eskertu nahi duela EH Bildu koalizio politikoarekin udalbatzarreko gai-zerrendako puntu gehienetan adostasuna lortzeko izandako elkarriketen tonu ona. Bigarrenik, adierazten du arrazoitu nahi duela bere talde

politikoak gai-zerrendaren 3., 4. eta 5. gaietan emandako abstentzio-botoa, garbi utzita, hori bai, guztiz errespetatzen dutela 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetako emaitza eta, hain zuzen ere, emaitza horren isla direla gaurko udalbatzarrean aurkeztutako proposamenak eta hartutako erabakiak.

Adierazten du, bere talde politikoaren iritziz, 2023-2027 agintaldi honetan hiru batzorde informatzaile iraunkor eratzeak arriskua dakarrela batzorde horiek «makrobatzorde» bihurtzeko eta, ondorioz, tramite hutsean geratu eta izan behar duten izaera deliberatzailea galtzeko.

Bestalde, Noemi Ostolaza zinegotziak adierazten du, udalbatzarrak Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) oposizioko zinegotzi-kargua %55eko dedikazio partzialarekin betetzea erabaki badu ere, Udalari eskainiko dion dedikazioa %100ekoa izango dela.

Azkenik, Noemi Ostolaza zinegotziak esaten du pena pixka bat eman diola EH Bildu eta EAJ talde politikoen arteko elkarriketak ez duelako azkenean erabateko akordiorik lortu.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du 2019-2023 agintaldian EH Bildu koalizio politikoko zinegotzi beterano bakarra Beñat Solaberrieta izan zela eta, 2023-2027 udal-agintaldi honetan, berriz, EH Bildu koalizio politikoak izandako esperientzia eta lortutako heldutasuna kontuan hartuta egin dutela parte-hartze-mahaiak indartu eta batzorde informatzaileak hirura murrizteko proposamena; esaten du, baita ere, horrekin erraztu egin nahi izan dutela EAJko hiru zinegotzien jarduna.

Bestalde, Anuska Esnal alkateak nabarmentzen du EAJ talde politikoarekin izandako bilerak tonu onean egin direla, azken lau urteotan bezala, eta adierazten du espero zuela EAJren abstentzio-botoa alkatearen eta zinegotzien liberazioak eta ordainsariak onartzeko, baina, egia esateko, ez zuela espero gai-zerrendako 4. eta 5. gaietan ere abstenitzea.

Laburpen historikoa eginez, Anuska Esnal alkateak adierazten du, 2019-2023 agintaldian liberazio hauek onartu zirela:

1.- ONARTZEA Anuska Esnal Olidenek dedikazio eksklusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin (urteko zenbatekoa: 55.422,78 euro).

2.- ONARTZEA Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea lehen alkateorde eta Hirigintza batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 23.994,67 euro).

3.- ONARTZEA Bakarne Oliden Albenizek (EH Bildu) %25eko dedikazio partzialarekin betetzea bigarren alkateorde eta Sektore, Turismo eta Merkataritza batzordearen eta Euskara eta Hezkuntza batzordearen buru kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa: 11.997,34 euro).

2023-2027 udal-agintaldi honetarako, berriz, EAJ talde politikoak oposizioko zinegotziaren liberazioa eskatu du, %75eko dedikazio partzialarekin. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikulua hau dio, ordea: 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan gutxienez dedikazio partzialeko oposizioko zinegotzi bat egongo dela bermatuko da, udal-gobernuaren kontrol- eta fiskalizazio-funtzioak eraginkortasunez bete ahal izateko. Hori dela eta, EUDELeke Batzorde Exekutiboak, 2017ko apirilaren 10eko bilkuran, hau erabaki zuen: 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan oposizioko zinegotzien dedikazio partzialaren ehunekoa %50etik %75era bitartekoa izatea, eta ehuneko zehatza erabakitzeko, alderdi hauek kontuan hartzea:

- Biztanle-kopurua; kontuan hartuta herria zein kopurutik dagoen gertuago: 5.000 biztanletik edo 10.000tik.
- Gobernu-taldean dedikazio eskusiboa duten karguen kopurua.

EUDElen erabakiaren arabera, aurreko irizpideetatik ateratzen den dedikazio-ehunekoa aplikatuko zaio oposizioko zinegotzi liberatuari; ordainsari-maila erabakitzeko, berriz, irizpide hau aplikatuko da: gobernu-taldean dedikazio eskusiboa duen ordainsari-maila txikienerako zinegotziaren ordainsari-maila bera aplikatuko zaio, %10eko minorazioarekin.

Ondorioz, alkateak proposatu zuen Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) oposizioko zinegotzi-karguan aritzea, %55eko dedikazio partzialarekin eta %10eko minorazioarekin, indarrean dagoen UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailari dagokion ordainsari-mailarekin (urteko zenbatekoa: 25.999,65 euro), batez ere kontuan izanda hartu dituen kargu eta eginkizunen bolumenak ez duela inolaz ere justifikatzen dedikazio partziala %75ekoa izatea.

Era berean, Anuska Esnal alkateak adierazten du, gaia dela-eta indarrean dagoen araudia ikusita, Orioko herriari, biztanle-kopuruaren arabera, gehienez ere hiru liberazio dagozkioa %100ean, eta alkate batentzat ezarritako gehienezko ordainsari-mailaren muga Eusko Jaurlaritzako zuzendari nagusi baten ordainsariari dagokiona dela, %10eko minorazioa eginda.

Azkenik, Anuska Esnal alkateak adierazten du Orioko udalbatza osatzen duten talde politikoaren diru-izendapena (hileko 350 euroko diru-izendapen finkoa eta hileko 25 euroko diru-izendapena zinegotzi bakoitzeko) ez dela aldatu eta 2019-2023 agintaldiko berbera dela, eta horrekin lortu nahi izan dela zinegotzi ez-liberatuek berdintasunean lan egin ahal izatea eta, bide batez, Udaleko kontu-hartzailetzaren lana erraztea.

Anuska Esnal alkateak dio, beraz, udalbatzar honetan egindako proposamenak koherenteak direla.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarrak oposizioko zinegotzi-kargua %55eko dedikazio partzialarekin betetzea erabaki badu ere, Udalari eskainiko dion dedikazioa %100ekoa izango dela.

Bukatzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Lourdes Salsamendik oposizioko zinegotzi-kargua %55eko dedikazio partzialarekin eta %10eko minorazioarekin betetzeko udalbatzarrak hartu duen erabakia, EUDELeko batzorde exekutiboak 2017ko apirilaren 10eko bileran hartutako erabakian oinarritu dela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,